

KAIARRIBA ARRAUN TALDEARI 2025 EKITALDIRAKO ZUZENeko DIRULAGUNTZA EMATEA

2025/06/16an, 202599900028537 erregistro-zenbakiarekin, G20962312 IFZ duen KAIARRIBA ARRAUN ELKARTEAk dirulaguntza eskatu dio Donostiako Kiroletako Udal Patronatuari (aurrerantzean, KUP) 2025eko ekitaldian ondoko egitasmo hauek garatzeko: Kaiarriba proiektua, Euskolabel, Euskotren, Txapelketak eta Kontxako Ligan pate hartzeko, 2025/01/01 eta 2025/12/31 bitarte. Eskabide hori 2025/06/19an, 202599900029272 erregistro zenbakiarekin eta 2025/07/08an 202599900032261 erregistro zenbaki bidez, zuzendu da.

Zuzeneko dirulaguntza da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) artikuluan aurreikusitakoetakoak, egitasmoen izaera dela-eta eta, diru-xedapena KUPeko 2025 aurrekontuan izendatuta dagoelako partidetan.

Dirulaguntza hauek KUPen Dirulaguntzen 2024-2026 Plan Estrategikoan sartuta daude 65. fitxan.

Zerga-betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatu da 2025/06/19an.

Elkarteari adierazi du ez dagoela premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta, Udalarekin edo haren erakundeekin hartutako zorrenatik.

2025eko ekainaren 16an aurkeztu zuten Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko adierazpena; hain zuzen ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikulua xedatutakoa betetzeko. Horren arabera, elkarteak adierazten du ez dagoela behartuta Berdintasun plan bat egin eta ezartzera.

Ekonomia Teknikariak 2025/07/09an egindako txostenean, aurreko 2024. denboraldiko justifikazioaren egoeraren berri ematen da, eta zuriak ondo eginda dagoela eta, dirulaguntzaren bigarren zatia ordaindu dela baieztatzen da.

CONCESIÓN DE SUBVENCIÓN DIRECTA PARA LA TEMPORADA 2025 DEL CLUB DE REMO KAIARRIBA

El 16/06/2025 con nº registro 202599900028537, la entidad CLUB DE REMO KAIARRIBA, con CIF G20962312, ha solicitado al Patronato Municipal de Deportes de San Sebastián (PMD, en adelante) ayuda económica para el desarrollo del siguiente proyecto en el ejercicio 2025: Proyecto Kaiarriba Participación Liga Euskolabel, Euskotren, Campeonatos y Kontxa, a disputar entre el 01/01/2025 y el 31/12/2025. Esa solicitud se ha subsanado con la documentación aportada el 19/06/2025 con n.º registro 202599900029272 y el día 08/07/2025 con n.º de registro 202599900032261.

Se trata de una subvención directa de las previstas en el artículo 22.2.a) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (LGS, en adelante), debido a la naturaleza de los proyectos y a que las disposiciones dinerarias está dotada nominativamente en el Presupuesto 2025 del PMD.

Estas subvenciones están incluidas en Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026 del PMD, en la ficha n.º 65.

El 19/06/2025 se acredita que se encuentra al corriente en el cumplimiento de obligaciones tributarias (Hacienda Foral y Recaudación Municipal) y con la Seguridad Social.

La asociación ha declarado que no se halla incurso en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento o sus entidades.

En fecha de 16 de junio de 2025 han presentado la declaración sobre igualdad de mujeres y hombres, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres. En base a ello, la entidad declara que no está obligada a elaborar e implantar un plan de igualdad.

En el Informe emitido por la Técnica económica el 09/07/2025 se da cuenta de la situación de la justificación de la temporada anterior 2024, en la que se constata que se ha efectuado correctamente la justificación y el pago de la segunda parte de la subvención.



Azaldutakoa dela-eta, Kudeatzaileak, KUPen Estatutuetan xedatutako eskuduntzei jarraikiz, ondorengo ebatzi du:

EBAZPENA

1.- G20962312 IFZ duen KAIARRIBA ARRAUN ELKARTEA erakundeari 115.000€ ematea, 2025eko aurrekontutik, DLOren 22.2.a) artikuluan aurreikusitako ZUZENEKO dirulaguntza moduan, 2025/01/01 eta 2025/12/31 bitarte ospatuko dena.

2.- Gastua 1.1920.211.481.05 partidari egozte.

3.- Erakunde antolatzailearen eta KUPen artean Hitzarmen bakarra sinatzea, dirulaguntza emateko alderdien arteko baldintzak eta konpromisoak jasoko dituen.

4.- Edozein Administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazionalak, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeek xede berarekin ematen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin bateratu ahal izango da dirulaguntza hau, KUPek berak dituen beste laguntza eta finantzaketa iturriekin izan ezik. Hala ere, DLOren 19.3 artikulua araberak, emaniko dirulaguntzaren zenbatekoak ez du, inolaz ere, gaindituko, bakarrik nahiz beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin elkarturik, diruz lagundutako jardueraren kostua.

5. Dirulaguntzaren %80 hitzarmena sinatutakoan ordaindu ahal izango da, aurreko ekitaldiko dirulaguntza justifikatuta eta likidatuta baitago, ekonomia teknikariak 2025/07/09an egindako txostenean adierazten denez, aurreko ekitaldiko dirulaguntzaren ordainketaren egoerari dagokiona. Gainerako %20a, gehienez ere bi hilabeteko epean ordainduko da, jasotako justifikazioa onartzen denetik zenbatzen hasita. Pertsona onuradunari ez zaio inolako bermerik eskatuko erakunde onuradunaren izaera zein den ikusirik, eta hitzarmen honetan bere gain hartutako obligazioak ez betetzeko arriskurik ez delako atzematen.

6.- Dirulaguntzen justifikazioek, jardueraren jarduketa memoria bat eta egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomiko bat izango dituzte, kontu-auditore baten txostenarekin batera, DOAren 74. artikuluan xedatutakoarekin bat. Kontu-ikuskatzaileak jardueraren justifikazio-kontuak aztertuko ditu, arreta berezia ipiniz DLOren 31. artikulua betetzeari.

Por cuanto antecede, la Gerencia, en virtud de las atribuciones que le han sido conferidas en los Estatutos del PMD, adopta la siguiente

RESOLUCIÓN

1º Conceder al CLUB DE REMO KAIARRIBA, con CIF G20962312, 115.000€ con cargo al presupuesto de 2025, en concepto de subvención DIRECTA de las previstas en el art. 22.2.a) de la LGS, a disputar entre el 01/01/2025 y el 31/12/2025.

2º Imputar el gasto a la partida 1.1920.211.481.05.

3º Suscribir un único Convenio entre la entidad organizadora y el PMD, en el que se recogerán las condiciones y compromisos entre las partes por las que se otorga la subvención.

4º La presente subvención será compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, salvo con las ayudas y/o financiación proveniente del propio PMD. No obstante, conforme al artículo 19.3 LGS, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

5º Se podrá abonar el 80% de la subvención a la firma del convenio, ya que la subvención del ejercicio anterior está justificada y liquidada tal y como se indica en el informe de la técnica económica del día 09/07/2025 de la situación del pago de la subvención del ejercicio anterior. El 20% restante se abonará en el plazo máximo de dos meses desde la aceptación de la justificación recibida. No será exigible la prestación de garantía por parte de la persona beneficiaria en atención a la naturaleza de la entidad beneficiaria y por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de este convenio.

6º La justificación de la subvención dispondrá, de una memoria de actuación de actividad y de una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, acompañada de un informe de auditor de cuentas, conforme a lo establecido el art. 74 del RGS. El auditor de cuentas llevará a cabo la revisión de las cuentas justificativas de las actividades, prestando especial atención al cumplimiento del artículo 31



de la LGS.

7.- Gastuen justifikazioa aurkezteko epea ez da 3 hilabetetik gorakoa izango, jarduera egiteko edo funtsak aplikatzeko ezarritako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

7º La presentación de la correspondiente justificación de gastos no deberá superar el plazo de 3 meses a contar desde la finalización del plazo fijado para la realización de la actividad o aplicación de los fondos.

8.- Ebazpen hau erakunde antolatzaileari jakinaraztea.

8º.- Notificar la presente resolución a la entidad organizadora.

Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da organo honetan, hilabeteko epean. Bestela, administrazio-auzietako errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Administrazio Auzietako Epaitegian; horretarako bi hilabeteko epea egongo delarik, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuak. Hori guztia, Administrazio Prozedura Erkidearen urriak 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8 eta 14. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

La presente Resolución agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante este mismo órgano en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso-administrativo ante el correspondiente Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de la fecha de su notificación, todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común y artículos 8 y 14 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Donostian, sinaduraren egunean

En San Sebastián, a fecha de la firma

KUDEATZAILEA / GERENTE